



IBILGAILUAREN ENKANTE PUBLIKOA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZA ADMINISTRATIBOEN AGIRIA

1go. KLAUSULA – AGIRI HONEN XEDEA

Baldintza agiri honen helburua da ibilgailu honen enkante publikoaren bidezko adjudikazioa arautzea: marka NISSAN modeloa NP 300 PICK UP matrikula 9638 GJX urtea 2008. Ibilgailua Erroibarko Udalarena da.

Ondare-ondasun higigarria da, eta ezin da erabili.

2. KLAUSULA - PREZIOA

Kontratuaren prezioa 800 € da, zergak kanpo. Salerosketa-kontratua formalizatu aurretik ordainduko da, banku-transferentzia bidez, Erroibarko Udalaren kontu honetan ES02 3008 0058 1707 0231 3826.

Esleipendunari dagozkion zergak kobratuko zaizkio.

3. KLAUSULA – PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Jarduteko gaitasun osoa duen eta kontratatzeko debeku gisa Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 22. artikuluan ezartzen diren inguruabarretan ez dagoen pertsona natural edo juridikoak, espainiarrak zein atzerriarrak, kontratatu ahal izango du Administrazioarekin.

4. KLAUSULA – KONTRATUAREN IZAERA

Kontratu hau pribatua da, eta, prestatu eta esleitzeari dagokionez, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak eta Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak arautuko dute lehentasunez; ondorioei eta amaierari dagokienez, berriz, zuzenbide pribatuko arauak.

5. KLAUSULA – ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK

Adjudikaziodunaren betebeharrak:

-Adjudikazioaren prezioa ordaintzea.

-Agiri honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzea.



-Salerosketaren gainerako gastuak bere gain hartzea.

6. KLAUSULA - PUBLIZITATEA

Enkantea Udalaren iragarki ohelean eta web orrian argitaratuko da.

Eskaintzak aurkezteko epea: 2025eko UZTAILAREN 23KO 14:00ak ARTE.

7. KLAUSULA – PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Proposamenak udaletxeko idazkaritzan edo Erroibarko Udalaren Egoitza Elektronikoa aurkeztuko dira.

Dokumentazio hau aurkeztuko da:

Proposamen ekonomikoa

1.- Eskaintza ekonomikoa: Agiri honetako II. ERANSKINEKO ereduaren arabera aurkeztuko da.

Proposamen ekonomikoak kontratua gauzatzeko behar diren gastu guztiak jasoko ditu, zergak eta BEZik gabeko kargak barne.

Baztertu egingo dira lizitazioaren zenbatekoa gainditzen ez duten proposamen ekonomikoak.

8. KLAUSULA – ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

Aurkeztutako eskaintza ekonomikorik handienaren alde egingo da adjudikazioa, eta berdinketarik egonez gero, zozketa bidez ebaztuko da.

9. KLAUSULA – ADJUDIKATZEKO PROPOSAMENA

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, "Proposamen ekonomikoa" gutun-azala irekiko da.

Alkatetzaren ebazpenaren bidez, ondasuna aurkeztutako eskaintzarik onuragarrienari esleitzea erabakiko da.

Adjudikaziodunak hamabost egun naturaleko epea izango du, adjudikazioa jakinarazten zaion egunaren biharamunetik, konprometitutako prezioa ordaintzeko. Prezioa ordaindu ondoren, salerosketa kontratua formalizatu eta esleitutako ondasuna entregatuko da. Eskaintako prezioa ezarritako epean ordaintzen ez bada, hartutako erabakia baliogabetu eta hurrengo eskaintzarik onenari esleitu zaio.



AYUNTAMIENTO
**VALLE DE ERRO
ERROIBAR**
UDALA

Ctra. a Francia s/n
Frantziako errepidea z/g
31696 LINTZOAIN (Navarra)
Tel. 948768011
www.erro.es

CIF P3109100B IFK

Lintzoainen, 2025eko ekainaren 19an

(2025eko ekainaren 18ko osoko bilkuran onetsitako agiria)



AYUNTAMIENTO
**VALLE DE ERRO
ERROIBAR**
UDALA

Ctra. a Francia s/n
Frantziako errepidea z/g
31696 LINTZOAIN (Navarra)
Tel. 948768011
www.erro.es

CIF P3109100B IFK

I. Eranskina - Erroibarko Udalarekin kontratatzeke eskatzen diren baldintzak betetzen direla adierazten duen erantzukizunpeko adierazpenaren eredua

..... jaunak/andreak

jakinarazpenetarako helbidea

NAN Telefonoa

e-maila.....

bere izenean jardunez, eta _____ MARKA DUEN _____ MATRIKULADUN IBILGAILUA
SALTZEKO KONTRATUA arautuko duten baldintzen agiria ezagututa,

ADIERAZTEN DU:

- Erroibarko Udalarekin kontratatzeke baldintzak betetzen dituela.
- Kontratazio hau arautzen duen baldintza-agiria ezagututa, konpromisoa hartzen duela hura betetzeko eta zehatz-mehatz beteko duela.

Eta horrela jasota gera dadin eta behar diren ondorioak izan ditzan, honako hau adierazi eta sinatzen dut,

.....(e)n, 2025ekoren (e)an

(Sinadura)



AYUNTAMIENTO
**VALLE DE ERRO
ERROIBAR**
UDALA

Ctra. a Francia s/n
Frantziako errepidea z/g
31696 LINTZOAIN (Navarra)
Tel. 948768011
www.erro.es

CIF P3109100B IFK

II. Eranskina- Proposamen ekonomikoaren eredua.

..... jaunak/andreak

jakinarazpenetarako helbidea

NAN Telefonoa

e-maila.....

bere izenean jardunez eta _____ MARKA DUEN _____ MATRIKULADUN IBILGAILUA
SALTZEKO KONTRATUA arautuko duten baldintzen agiria ezagututa,

ADIERAZTEN DU

- Eskualdaketaren prezio gisa, dagozkion zergak kontuan hartu gabe, _____ euro
eskaintzen dituela, baldintza-agirian ezartzen den bezala.

Eta horrela jasota gera dadin eta behar diren ondorioak izan ditzan, honako hau adierazi eta
sinatzen dut,

.....(e)n, 2025ekoren (e)an

(Sinadura)